

EKINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO DIRU-LAGUNTZAK EKINTZAILETZAKO TOKIKO PROIEKTUEN TESTUINGURUAN (LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA)

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020ko otsailaren 26ko ebazpenaren bitartez, **2020ko martxoaren 12ko EHAAn argitara eman zen ekintzaileei laguntzeko 2020ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia.**

[Ekintzaileei laguntzeko 2020ko diru-laguntzen deialdia](#)

2021ko apirilaren 15an, entitate honi, BILBAO EKINTZA EPELi, honako hauetan **entitate laguntzaile gisa jarduteko** ebazpenaren berri eman zitzaion: **enpresa-jarduera berriak abiaraztea** sustatzeko diru-laguntzen deialdia eta **enpresa-ideia berrien** sustatzaileei laguntza emateko diru-laguntzen deialdia, ekintzailetzako tokiko proiektuen testuinguruan.

Emandako diru-laguntzak

Hauxe da entitate honi emandako diru-laguntzen kopurua:

Dirulaguntzak	30 urte baino gazteagoak		30 urte edo gehiagokoak	
	Gizon	Emakume	Gizon	Emakume
Jarduera jartzeko	2	2	3	3
Enpresa - ideia	10	10	27	27

- Enpresa-jarduera berriak abiarazteko diru-laguntzak: **6** (> = 30 urte), horietatik 3 emakumeentzat dira, eta **4** (< 30 urte), horietatik 2 emakumeentzat da.
- Enpresa-ideia berrietarako diru-laguntzak: **20** (< 30 urte), horietatik 10 emakumeentzat dira, eta **54** (>= 30 urte), horietatik 27 emakumeentzat dira.

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko baldintzak 2020ko martxoaren 12ko EHAAn argitaratu ziren, 2020ko otsailaren 26ko ebazpenean, lehen aipatutakoak.

Eskabideak aurkezteko epea 2021ko maiatzaren 12an amaituko da, 13:00etan.

Eskabidea aurkezteko informazioa:

Interesdunak harremanetan jarri beharko dira, bai 944205360 telefono-zenbakira deituz, bai big@bilbaoekintza.bilbao.eus helbidera idatziz.